

N **u** **!**



Babes handia jaso du herri manifestuak



**Usurbil,
bide berrietan barrena**

ALKARTASUNA KOOPERATIBA

Hemen izango dituzu trafiko araudi

berriaren arabera
erabili beharreko
txalekoak:



Baita ere lanerako
erropa:

- Seguridateko botak,
bota normalak, zapatillak...
- Lanerako uretako trajeak
- Forro polarrak, txalekoak...



Ugarte Industrialdea, 12 - Telf: 943 36 11 14
E-mail: alkartasuna@fcae.org



*Txotxetik sagardoa
jarraitu usadioa!*

Santuenea,
Telf: 943 36 50 31
Mobila: 670 02 77 31




SAGARDO'ATEGIA

www.noaua.com

Informazio interesgarriena gure web guncan

gaurko iragarpena



Eguraldi iragarpena, lan merkatua,

agenda, albisteak, inkestak, foroak,

osasun zerbitzua, Noaua! aldizkaria...

Txirrikitutik

Azkeneko urte hauetan Usurbilen etxe asko egin dira. Aeta egiten ari dira, babes ofizialekoak eta pribatuak: Eguzkitzan, Aginagan, Galtzaragainan, Artzabalen, Zubietan... Baina urte gutxitan etxe asko egitearen kontu hau ez da berria gure herrian, izan ere duela 30 urte inguru egoera berdina bizitu baigenuen. Ondoko argazki honek garbi adierazten digu.

1972. urtean Paisajes Españoles-ek ateratako argazki hone-tan Atxegalde auzoaren eraketaren prozesua ikus dezakegu. Etxerik gabe, auzoko bost kaleak garbi ikusten dira: Ariztitxo kalea, Beheko kalea, Erdiko kalea, Goiko kalea eta Alperroburu kalea. Goikaldean berriz, garai batean Ageri-Alde ikastetxea izan zena (oraindik frontoirik gabe) eta auzoko lehenengo lau etxeak ageri dira. Argazkiaren ezker aldean Mahaspildegia Elkarte eta langileetzeko txabola ageri dira, eskubi aldean San Inazio auzoko etxeak eta behekaldean berriz N-634 errepidea ikusi ditzakegu.

Lanak amaitu zirenean Atxegalde auzoa 21 etxez osatu zen,



Paisajes Españoles, 1972. urtea, Atxegalde

Udal Fototeka

horietatik 14 babes ofizialekoak ziren (zuriak) eta 6 pribatuak (marroiak). Guztira 200 etxebizitza inguru egin ziren.

Zalao Arnaiz Ibarguren



OHARRA: Udal fototeka herritarren zerbitzura dago eta horretarako atek zabalik ditugu bertako funtzionamendua ezagutzeko, argazkiren bat ikusi edo eta eskatzeko, herriko argazki zaharren bat udal fototekara digitalizatzerara ekartzeko... Jar zaitez udal fototekarekin harremanetan, udaletxeko 2. solairuan gaude (9'00etatik 14'00etara). Telefonoa 943 371951 eta e-posta: fototeka.usurbil@udal.gipuzkoa.net
Garai bateko argazkien bidez gure herria ezagutzeko aukera izango duzu. Anima zaitez!

N u !

Argitaratzailea : Noaua! Kultur Elkarte

Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil (Gipuzkoa)

Tlf.: 943 36 03 21 Fax.: 943 37 25 02

elkartea@noaua.com

erredakzioa@noaua.com

publizitatea@noaua.com

Web orria: www.noaua.com

Kazetarien koordinatzailea: Imanol Ubeda

Publizitatea: Jon Rueda

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Oxkar Santamaria, Maria Angeles Arruti, Maria Jesus Urbieta, Jone Eizmendi, Ekiñe Olaizola, Iñaki Labaka, Amagoia Mujika, Xabier Arregi, Pako Agudo, Alfonsito Vidal, Alazne Begiristain, Ana Urdangarin, Joseba Pellejero, Ainara Uribe, Eider Jauregi, Mikel Bengoetxea, Agustin Esnaola, Eneko Harreguy, Salome Portu, Pello Aranburu, Joseba Zubeldia, Imanol Goenaga, Andoni Udabe, Eukene Kamino, Aloña Pulido, Isaak Muñoz, Olatz De Miguel, Iñaki Agirresarobe eta Denborapasak: LUMA, O.E.

Bazkidetza: Aitziber Aranberri

Erredakzio Kontseilua: Imanol Ubeda, Jon Rueda, Zalao Arnaiz, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza

Noaua! hamaboskariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Noaua! Kultur Elkarteko jendaurreko ordutegia:
10.00-14.00 / 16.00-20.00 astegunetan

AZALA

Artzabalgo etxebizitzek jolas parke berri bat ekarri dute.

Aurkibidea

ZUTABEAN, AITZIBER MATXAIN

4. ORR.

ELKARRIZKETA

5. ORR.

Hitza Jasoz proiektuak aurrerapauso handia eman du

BERRIEMAILEAK KALEJIRAN

6. ORR.

PORRUSALDA

10. ORR.

Euskal Herria aldarrikatze herri-manifestua

ERREPORTAJEA

12. ORR.

Herriak itxura berria hartu du oso denbora gutxian



TXOTX GARAIAN, EZETZ DENAK EGIN?

14. ORR.

DANBORRADAKO IRUDIAK NOAUA! TXIKIN

19. ORR.

EKITALDI AIPAGARRIENAK AGENDAN

22. ORR.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herra!

Zutabea !



AITZIBER MATXAIN

Barru-giro

Euria eta haizea gogor ari dira leihoko kristalak astintzen. Soinu ederra hau, barruan goxo-goxo egoteko, ezta?

Garai honetan baratzak ez digu lan gehiegi ematen. Udaberri eta udaran bizitza puri-purian ikusten da, eta egun gutxi batzuk baratzara joan gabe pasatu ezker, izugarritzko aldaketak sumatzen dira; landare hau txukun jarri, fruituak bildu, jorratu... ez da egoten opor luzeak hartzeko aukerarik, bizitza etengabe adierazten ari baita orduan. Garai honetan, aldiz, hotzak prozesu hori eten du, eta bizitza barneratu, lurreratu egiten da; harrigarria da orain hilabete batzuk zeuden piper, kalabaza eta gainerantzeko landare eta belarrak nola 'xurgatu' dituen lurrak, adar gogorrenak bakarrik utziz.

Hala ere, garai honetan barru-giroan egiteko lan ugari bada; adibidez baratzako planifikazio txukun bat egitea.

Honetarako, gure lurraren ezaugarriak, gure gustuak eta aurreko esperientziak kontuan hartuta, zein landare

jarri nahi ditugun erabaki beharko dugu lehendabizi.

Non aldatu erabakitzeke, besteak beste aurreko urteko toki berdinean familia bereko landareak ez jartzea kontuan hartu beharko genuke (errotazioa); honek izurrite eta gaitz aukera gutxitu eta lurra ez 'nekatzea' ekarriko du, landare hauek aurreko urtekoen behar desberdinak, lur eremu desberdinetan sustraiak zabaltzeak... lurra eta landareen osasunean onurak eragiten dituzte.

Baratzaren orientazioa, lur mota desberdinak... landareen beharrekin alderatu eta leku egokiena aukeratzen saiatu espezie bakoitzarentzat.

Bestalde, landare 'asoziazioak' ere kontuan hartzea ez legoke gaizki; hau da, landare batzuk beste batzuen ondoan jartzea, honekin, lekua aprobeztatu, belar txarrak ekidin eta gaitzetaz babestu ditzakegu.

Garai egokia da aukera hauek aztertzeke eta gustokoa izan ezker, satizfakzioen uzta berehala jasotzen hasteko modua.

IKA MIKA ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA.

IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!k IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU.

NOAUA!k ez du bere gain hartzen **IKA MIKA** atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Hurrengo alea: Otsailak 6. Idatzia ekartzeko **azken eguna:** Urtarrilak 30.

e-posta bidez: erredakzioa@noaua.com



TXIRIBOGA
TABERNA

ntx k, k t k
t l t r k n n t u k

Irazu kalea, 3 Telf: 943 36 13 98



txirriStra

TABERNA

- Plater konbinatuak
- Opatarteak
- Pintxoak

Kontseju zaharra, 13

Telf: 943 36 04 66

JOSETXO IKATZETA



Iturgintza

TELF: 943 36 20 26
687 95 12 25

ERRAZ IN

Igeltser tza

r rra

K I N u s , l
T I F 3 3 / 2 7 r 3 S I 2 5
S n t u ■ M 2 2 5 5

I l t s r t z

Mugikorra: 649435475
649435476
943 363370- 361439

MIKEL
IZ GI E

ELEKTRIZITATE

n u e , 7
R l e
el || - || || 111

“Hitza Jasoz” aritu da Koro Tapia

Duela zortzi urte abiatu zen “Hitza Jasoz” izeneko ekimena. Bertako hizkera bildu asmoz, 16 elkarrizketa egin ziren. Baina hortxe eten zen proiektua. Grabazio horiek aztertu eta argitalpen bat bideratu asmoz, 2003ko martxoan lan deialdi bat egin zuen Udalak. Koro Tapia izan zen aukeratu eta sei hilabetetan lan handia egin badu ere, oraindik bada zereginik. Interesgarria litzateke 1996an hasitako proiektua berandu gabe burutzea.

Zertan oinarritu da zure lana?

Egin dudana eta eskatu didatena hau izan da: 16 elkarrizketatuei eginiko grabaketak entzutea (70 orduko grabaketak). Sei hilabete izan ditut eta epea mugatua izan denez, grabaketak entzun eta horien transkribaketa egiten aritu naiz. Baina material pilo bat dago, eta ezinbestean aukeraketa bat egin behar izan dut.

“Hitza Jasoz” taldeak zehaztu zuen gidoia jarraitzea izan da hartu dudana irizpide nagusia. Baina elkarrizketa bakoitzaren pasarte garrantzitsuenak aukeratu ditut.

Proiektu hau amaitu gabe geratu da. Lan asko falta al da?

Denboran mugatua sentitu naiz.

Askoz sakonago lan egin zitekeen; sentsazio horrekin geratu naiz behintzat.

Baina transkribaketa guztiak egin dira ala batzuk bakarrik?

Bi mailatan egin da. Batetik, entzundako hori euskara batuaz idaztea. Horrekin gustura geratu naiz. Aukeratutako pasarteak bukatuta geratu dira.

Bestetik, transkribaketa fonetikoak (entzun bezala paperean jaso grafia berezi batekin). Horretan ez dut behar adina astia izan. Hiru bat geratu zaizkit bukatu gabe. Lan honetan asko lagundu dit Joxe Ramon Zubiaurrek.

Aspaldiko kontuetan murgildu zara grabazio hauen bidez. Zerk txunditu zaitu gehien?

Gustura entzun nituen Matilde Urkia serorak kanpaien inguruan esandakoak. Kanpaia-mota pilo bat dago, bakoitzak du bere esanahia. Demetrio albaiterua, medikua, Don Juxto... Makina bat kontu eta txantxa jasota geratu dira.

Elkarrizketatu gehienak baserri lanean zailduak dira eta aspaldiko kontuak dira nagusi. Garai batean, esate baterako, elizak pisu handia zuen. Aspaldian, dantzak eta erromeriak gaizki ikusiak zeuden. Baltsean eginez gero, kongregazioetik kanpo geratzeko arriskua zegoen...



KORO TAPIAK JARRAIPENA EMAN DIO “HITZA JASOZ” TALDEAREN EGITASMOARI.

Hau guztia argitaratzeko asmoa ere bazen, ezta?

Nire ustez oso garrantzitsua litzateke. Usurbildar batentzat eta usurbildarra ez den batentzat ere, informazio hau jasotzea oso aberatsa litzateke kultur ikuspegitik. Ez da egin baina asmoa hortxe dago

Pena litzateke zuk egindako lanari amaiera ez ematea. Jarraituko al zenuke lan honetan?

Nik jarraituko nuke. Oso gustura aritu naiz eta gainera asko ikasi dut.

Usurbilgo hizkeraren arrasto bizia

Gure inguruko helduen kontakizunak bildu asmoz, “Hitza Jasoz” izeneko taldea osatu zen 1996. urtean. Bederatzi lagunek osaturiko lan-talde honek ekimen interesgarria abiarazi zuen: Usurbilgo mintzaira-motak, espresabideak, atsotitzak, pasadizoak... biltzea. 16 elkarrizketa egin ziren, guztira 70 ordu grabatu ziren.

Ikuspegi linguistikotik ez ezik, kultura, historia eta etnografia aldetik ere interes handiko grabazioen aurrean gaude. Elkarrizketen bidez garai bateko usadioak, ohitura zaharrak eta kontakizunak jaso baitziren.

Grabatu ziren elkarrizketak, guztira, hamasei izan ziren.

1. Maria Muguruza Arozena (Aldatsa Baserria)
2. Matilde Urkia
3. Joxe Mari Urbistondo Zendoia (Leku Eder Etxea)

4. Jose Mari Lizaso Peñagarikano (Itxasku Enea Baserria)
5. Jorge Aizpurua Zeberio (Panaderikoa)
6. Eustakio Alkorta (Egioleta Baserria)
7. Antonio Pello Aranburu eta Patxi Illarramendi
8. Martin Aliri
9. Hilari Aizpurua
10. Felix Bereziartua eta Maria Luisa San Sebastian (Uriberrri Etxea-Aginaga)
11. Fermin Roteta eta Teresa Altuna (Urdaiaga Baserria)
12. Aginagako angulazaleak (Patxi Maiotz, Benito Aranburu, Jose Mari Zumeta eta Juanito Galarraga)
13. Joxe Beraetxe
14. Kanpai grabaketa
15. Elias Sagardia
16. Joxe Juan Bereziartua



IMANOL
GOENAGA

Txokoalde

Gaztetxean berriz ere kontzertuak

Gaurko honetan, lehenik eta behin aurtengo gaztetxeko lehen kontzertua aipatuko dugu. Azken aldi honetan lasai ibili gara, oporraldi txiki bat hartu dugu eta, bide batez, obra txiki batzuk egin ditugu.

Urtarrilaren 31n antolatu dugun kontzertua azpimarratzera gatoz. Egun horretan, Akerran bi talde hasiberri izango ditugu: Txinaski eta Malahierba taldeak, hain zuzen ere.

Egun batzuk beranduago, otsailaren erdialderako, beste kontzertu bat prestatzen ari gara Neu eta Legen Beltza taldeekin. Azken talde honek Warner zigilu multinazionalarekin disko baterako sinatu du eta beste behin ere hemen izango dira Neu taldearekin batera. Beraz, berriro ere badirudi hasi garela kontzertuak lotzen 2004 urte honetarako.



Beste kontu bati ere heldu nahi diot. Denok dakigunez, orain Iñaki Labakak eta guk bakarrik betetzen dugu kronikatxo hau. Norbaitek, txoko honetako kontuen inguruan idatzi nahi izanez gero, NOAUA!ra bertara dei dezala.

Besterik gabe hurrengo batera arte.



ANA
URDANGARIN

Kaleberri

Etengabe hazten

Aupa guztioi! Denoi kostatzen zaigula Agabonen ondoren asentatzea. Hainbeste jan, hainbeste edan, ez da gauza erraza eguneroko martxara bueltatzea. Egia esan, harrituta nago zenbat hazten ari den gure herria, eta honekin batera, geroz eta komertzio gehiago dago.

Badakizue orain Usurbilen bi autoeskola daudela? Bai bai, horixe bera. Lehen denak ezagutzen genuena Autoeskola Usurbil zen; nik ere bertan atera nuen gida-baimena.

Bada, orain, bi alajaina. Konpetentzia latza eduki behar dute elkarren artean. Bata, lehen zegoenaren lekuan dago; eta bestea, Olanoneko azpian ireki dute. Ez dago dudarik pixkanaka pixkanaka gure herri txikia handitzen doala.

Ez ote da bihurtuko oso haundia, bestela...

Hurrengorarte. Aio.



Aranerreka

Kaixo herritarrok! Oraingoan auzoa alde batera utzi eta herri guztiarentzat idazteko asmoa dut. Lehen ere Aranerreka hitz egin izan dut eta oraingoan ere bertara eramango zaituztet (irakurtzeaz gain, bueltatxo bat emanaz hurbildu zaitezke).

Izenak adierazten duen moduan aran baten erdian doan erreka da, oinez ibiltzeko ezin hobe. Ibilgailu gutxi ibiltzen da bertan, zeharo ordekatua eta oso lasagarria, belardi baratza, zuhaitz, erreka ondoan ibiltzea.

Lehen jende asko hurbiltzen zen bertan sortzen zen mendiko uraren bila, baita kotxea garbitzera ere, baina denen onerako orain ez da ikusten horrenbeste.

Orain ikusten dena eta ondo ikusi ere, kotxez urrutien ailegatu daitekeen zabalgunean hartan, lurrean zaborra egoten dela. Bikoteak joaten dira kotxez bertaraino “haragikeriak” egitera,



kotxea epeldu eta laztan goxo batzuk egitera (gutxi edo asko denok dakigu horren berri). Baina salagarria iruditzen zait lurrean pilatzen den zaborra (preserbagailu, kaxa, zigarro...).

Bertaraino ez da herriko garbitzaile zerbitzua iristen eta udaltzain zerbitzu bat jarri nahi ez badugu badakigu: “egin maitasuna eta zaborra etxera”.

Kalezar



JOSEBA
PELLEJERO

Aldaketak egiteko garaia iritsi da

Badirudi urte berria hastearekin batera, Atxegaldeko kaleetan aldaketak egiteko garaia iritsi dela. Izan ere, azken egun hauetan Alperroburu kaleko zebra pasabideetan espalo berria jartzen hasi dira. Batez ere, orain arte koxka jaitsi nahiz igotzeko arazoak izan dituztenei lagungarri suertatuko zaie.

Gainera, idatzi nuen azken kronikan aipatutako pasabidea ere garbitu dute eta orain inolako zailtasunik gabe igaro daiteke bertatik. Ea bide honi jarraituz herriko txoko guztiak garbi eta txukun mantentzen diren, lan zaila bada ere. Hau ordea, gure laguntzarekin ez litzateke hain lan astuna bilakatuko, zeren kalean pilatzen den zikinkeria eta askotan, zaborra ere, gure axolagabekeriaren zeharkako ondorio besterik ez baita. Adibidez, jakinik igandean zabor-biltzaileak ez direla gure zabor-poltsen bila etorriko, ez dakit zergatik jendeak kalera atera (batzuetan larunbat gauean ere ikus daitezke poltsa batzuk) eta egun osoz katuen, haizearen eta bestelako erasoen



menpe uzten dituzten. Ez da batere atsegina kalekatuen goseak eraginda poltsak apurtuta eta barruan duten zaborra kaleko espaloian zehar sakabanaturik ikustea. Itsusia izateaz gain, besteekiko errespetuak batzuentzat bahintzat ezer gutxi balio duela adierazten du. Zer gertatuko litzateke ordea igandero, guztiok zaborra kalera aterako bagenu?

Atxegalde



AINARA
ARNAIZ



AGUSTÍN
ESNAOLA

Santuenea

Auzoko jendea ume talde baten beldurpean

Azken hilabete hauetan entzun izan dut gure Auzoan dagoen ume koadrila batek egin izan dituen hainbat gaiztakeri. Baina, aste honetan ikustea egokitu zait, ume talde honek maiz egiten duen gaiztakeri bat.

Bere babes-lekua edo, militarrek esango luketen bezala, xauzoko autobusaren geltokia da koartela. Han biltzen dira egunero, erretzeaz gain, ondotik pasatzen den jende helduari harriak botatzera, San Estebango sendategitik jaisten diren gaixoei graziak eta ile hartzeak egitera, auzoko beste umeei beldurtzera, aurkitzen dituzten zaborrak bide erdira botatzera, petardoak lehertuaraztera, semaforotan, gorri dagoelako, automobil txiki bat geratzen bada bi edo hiruen arte astintzera, etab...

Aipatutako guzti hauek nahikoa ez balitz, ez zaitetz ausartu ezer esatera, beraiek dira eta aurre egiten dizutenak. Ez baitira bakarrik aurkitzen, eta beti ohikoa izan da taldeak harrotu arazi egiten gaituela, hauei bai noski. Egin duten "grazia bat"

ikusitako arren, ezer esatera ausartzen bazara, beraiek mehatxatzen zaituzte, ukitzen badiezu zuk edukiko duzula gehiago galtzeko esanez eta kontuz ibiltzeko zuri ez dizutela ezer egin eta.

Tontoak ez dira, norbaitek astindu bat edo merezitakoa emango balie, salatu egingo lukete eta okerren handiena beretzat izan daiteke. Honekin adierazi nahi dut, oso legalista agertzen zaigula ume taldea hau, so ondo dakitelako legea bera alde, nola erabili.

Esan behar da, ez dagoela eskubiderik ume zikin batzuk, auzoko beste hainbat ume beldurtuta edukitzea, jende heldua beldurrez pasatzea beraien kuartelaren aurretik, Albaritok bizikletarekin bertatik pasatzeko beldurrez egotea, eta beste hainbat ekintza ezagutzen ez ditutenak jasatera. Honekin dei bat egin nahi dut, auzotarrak aurre egin behar diegula ume hauei eta zuzentzen ez badute bere jokaera beste bide legalagoak erabili beharko ditugula gauzak bere normaltasunera etortzeko.

Promesak



EIDER
JAUREGI

Urdaiaga

Gabon gauan, aitak purua piztutzearekin batera semea, burumakur, lehiora hurbiltzen da. Bere barnean gogoan du aitak orain urte batzuk egin zuen promesa, baina, ezinezkoa dela iruditzen zaio horrelakorik. Halako batean, semea aitaren ondora korrika hurbildu eta zera esaten dio:

-Aita zuk ez al zenuen esan erretzeari utziko zeniola Gabonetan?

-Bai seme, baina elurra egiten zuen Gabon gauean utziko nuela egin nuen promesa.

-Ba etorri nirekin kanpora. Elurra hasi du eta.

Aitak sinestu ezin eta semearekin kanpora irten zen. Familiako beste kide guztiak inguruan zituztela elkarri elur bolak botatzen hasi ziren. Aita oraindik harrিতuta zegoen, baina ez elurra hasi zuelako, baizik, bere semeak gogorarazi zion nagatik. Bitartean, elur malutek itzali zioten purua eskuetan hartu eta hau esan zion semeak:

-Beraz aita, oraingoa erretzeari utziko diozu ezta?

-Bai, seme, bai".



Ni ziur nago gutako askok erretzeari uzteko promesak urte amaieran egiten ditugula, baina egun gutxiren buruan berriro ere hasi egiten garela. Nik aurtengoan ez dut horrelakorik egin, aurreko urteko frakasoaren ondoren hobe beste garai bat aukeratzea. Dena dela, animoak luzatu nahi dizkiet erretzea uztea erabaki duten guztiei eta jarrai dezatela ahalegin horretan promesak izan ala ez.

Aginagatarrak Urdiñarben

Egun ederra igaro genuen Aginaga eta Usurbilgo haur eta guraso batzuek Zuberoan kokatuta dagoen Urdiñarbe herrian. Laugarren urtez jarraian. Hasiera batean, urtero Sagardo Afari bat egin nahi zutela eta, gure laguntza eskatu ziguten Urdiñarbeko "Bil-Xokua" kultur elkartekoek, prestaketa lanetarako. Hura izan zen honen hasiera.

Afariak gain, azken bi urteotan, pilota tarteko, bi herrietako haurrek hartzen dute protagonismoa lau urteotan azaroko edo abenduko asteburu batean antolatu dugun festan. Larunbat arratsaldean pilota partidak jokatzen dira Urdiñarbe eta Usurbilgo haur eta gaztetxoaren artean, Urdiñarbeko frontoian edo trinketean. Hango eta hemengo helduen arteko partida ere izaten da. Ikusle asko ez da biltzen Urdiñarben, baina kontutan hartu behar dugu 200 biztanleko herri txiki batetaz ari garela hizketan, eta gehienak baserritarrak direla: herri horietan iluntzea arte ez da jenderik inguratzen kalera.

Gaueko bederatziak aldera hasten da jendea hurbiltzen, afari goxoaren usainean. Joan den abenduko afarian markak hautsi ditugu: 150 pertsona bildu gara mahaiaren inguruan. Aurten Kerman Errekondo,



Joakin Pagola eta Juli Bereziartua aritu ziren sukaldari lanetan. Hona menua: entsalada mistoa, bakailao tortila eta txuleta, dena Aginagako sagardo onez igurtzita. Urdiñarbetarrek bukaeran aitortu ziguten oso afari goxoa atera zutela.

Afalostean izan genituen abeslari, bertsolari eta xirulariak ere. Eta afaltzera bildu ziren guztien artean zozkatu genituen Zubeldia anaiek eta Euskalteleko txirindulari guztiek sinatutako bi elastiko. Gure esker ona azaldu nahi diet bai Zubeldia anaiei, eta bai pilotari partidak antolatzen lagundu diguten Enrike eta Landari.

Aginaga



LONTXO
ZUBIRIA

Igeldoren bidetik gu ere?

Gogorra da herri izan eta udalerrri ez garenon halabeharra. Gure antza du horretan Igeldok. Baina, guk ez bezala, haiek aspalditik erabaki zuten independentziaren edo, nahi bada, desanexioaren alde lan egitea. Normala ere bada horrela izatea, Igeldok baldintza egokiagoak betetzen baititu horretarako. Desberdintasunak desberdintasun, gertutik ezagutu beharko genuke, hala ere, haien ibilbidea.

94ko otsaila baino lehen aurkeztu zuten Diputazioan desanexio eskaera. Eta horrela, bizkor jokatuta, aurrea hartu zioten lege berriari (askoz ere zorrotzagoa eta ia bide guztiak itxiko lituzkeena). Geroztik saiatu da Donostiako udala lege zaharraren ordez lege berria aplikarazten, baina auzi horretan udala (Donostia) galtzaila atera da. Gainera, nahiz Donostiako agintariek muzin egin dioten desanexio eskaera tramitatzeari, azkenean

amore eman behar izan dute. Orain, ezinbestean, Gipuzkoako Batzar Nagusien esku gertzen da erabakia hartzea, bi edo hiru hilabete barru.

Igeldon, legeen bidea ez ezik, herri kontzientziarena ere ederki jorratu dute. Oso adierazgarria izan zen erreferendumak eragin zuen astindua.

Eta, hirugarrenik, desanexioarena erabaki bitartean, udalarekin negoziatzen aritu dira, Igeldorako aginte-molde propio bat zehazteko. Eredu horrek antz txikia du Zubietako Herri-Batzararekin, askoz ere eskumen zabalagoa eta Entitate Lokal Txikien nortasun juridikoa bereganatzen baititu.

Kuartelak, kartzelak, errauste-plantak eta gainontzekoak gainera datozkigun garai honetan, nortasun eta ahalmen handiagoa behar dugu nolabait babesteko. Igeldora begiratuta badugu, nik uste, zer ikasi eta zer hausnartu.

Zubietako



XABIER
ARREGI

Euskal Herria aitortzeko herri manifestua aurkeztu da

Urtarrilaren 18an, "Euskal Herria aitortu, errespetatu" irudiaren aurkezpena egin zen. Azken urteotan, era batera edo bestera errepresioaren eta zapalkuntzaren ondorioak jasan dituzten herritarrak bilzen dira ekimen honen baitan.

1936ko gerrako errepresaliatuak, torturatuak, espetxeratuak, atxilotuak, erbeste-ratuak, gerra zikinak erahildako herritarren senideak, preso senideak, intsumituak, hautetsi inhabilitatuak, solidarioak, Egin, Gara, Egunkaria eta Zabaltzen-eko langileak, Joxemi Zumalabe fundaziokoa, AEK-ko kideak, euskal adarrako irakasleak eta ikasleak... guztira 60tik gora herritarrek hartu zuten parte pilotalekuan eginiko agerraldian. Manifestu batekin laburbildu zuten "Euskal Herria aitortu, errespetatu" ekimenaren funtsa. Besteak beste, honela dio hizpide dugun manifestuak: "2004ko urtarrilaren 18an iheslari bat eta zazpi herritar ditugu preso; inoiz ez dira hainbeste usurbildar preso egon. Usurbilgo Herri Lan plataforma baliogabetu zuten, 1.200 herritar boto eskubiderik gabe utzi, biltzeko eskubidea ukatu, udal-etxean parte hartzeko aukera eragotzi. Inoiz ez bezalako apartheid egoera bizi dugu gaur egun".

Halaber, tortura, espetxea eta eskubide murrizketa belaunaldi belaunaldi errepikatzen diren tragediak direla diote herritar hauek. Pilotalekuan egindako ekitaldian, Espainiari ez esateko garaia iritsi dela azaldu zuten: "Euskal Herria aitortua eta erres-



60 HERRITAR BILDU DIRA HERRI MANIFESTU HONEN INGURUAN.

petatua izateko garaia da. Euskal Herriaren nortasunari eutsi nahi diogunok eta autode-terminazioa aldarrikatzen dugunok bat egin behar dugu. Ez dago beste biderik. Eragile sozial, ekonomiko, politiko eta kultural guztiok nork bere esparruan zintzo heldu behar diogu lan horri".

SALAKETAK EGITEKO MAHAIK IPINIKO DIRA AITZAGA AURREAN

Ekitaldi honek jarraipena izango du datozen egunotan. Urtarrilaren 24ko aste-bukaeran, esate baterako, Espainiako Estatuari salaketak egiteko mahaia jarriko da Aitzagaren aurrean. Ostiral arratsaldean, 19:30etatik 21:00etara; larunbatean, 12:00etatik 14:00etara; eta igandean, 12:00etatik 14:00etara. Honen bitartez, espainiar eta frantziar Estatuak Euskal Herriaren aurka daramaten eskubideen urraketa salatu nahi da. Martxoaren 14ko hauteskundeak bitarte, ahalik eta salaketa gehien bildu nahi da, ondorenean nazio-arteko erakundeetan aurkeztu asmoz.

UHLREN PRENTSA OHARRA

Usurbilgo udalbatzaren azken Osoko bilkuran, PSOEko Enriqueta Rodriguezek zinegotzi kargua hartu zuen. Ohar honen bidez, salatu nahi dugu berari ez dagokion eserlekua hartu duela eta, gainontzeko bost zinegotzi eta haien alderdiak bere garaian egin zuten bezalaxe, gure zerrenda bozkatu zuten ehunka usurbildarren eskubide politikoak ilegitimoki baztertu eta babitu dituela.

Gainera, tamalgarria da, gurea bezalako herri euskaldunean, euskara ez dakien beste udal ordezkaria izatea, horrek udalaren barne-funtzionamenduan gure hizkuntzaren erabilpena gero eta gehiago mugatzen duelako".

UDAL LANGILEEN KONBENIO BERRIA

Azaroaren erdialdean, udal gobernuak 2004ko lan egutegiaren irizpideak zehaztu zituen. Baina langileen gehiengo batek ez zuen proposamena onartu. Honen aurrean, alkateak dekretu bidez konbenio berria osatzeko epea finkatu berri du: 2004ko martxoaren 31a arte. Epe honetan, lan egutegia, lanaldia eta beste baldintza batzuk lasaiago eta denboraz aztertzeko gogoa-aldi bat zabaldu nahi du udal gobernuak.

Zehazturiko egun hori iritsi bitartean, langileek ezingo dituzte "zubiak" hartu. Dekretu horrek, halaber, aintzakoztat hartzen du langileen lanaldiak osatzeko egutegi-proposamena.

Gutxitu fisikoentzat hobaria ibilgailuen gaineko zergan

Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen Gaineko Zergan gutxitu fisikoei zuzenduriko hobari bat aurrikusita dago. Baina adi egon, eskaera egiteko epea otsailaren 13an amaitzen baita.

1-Minusbalidoen izenean matrikulatutako ibilgailuak, pertsona horiek soilik erabiltzekoak direnean. Salbuespen hau pertsona ezinduek gidatutako ibilgailuak izan nahiz horiek garraiatzeko ibilgailuak direnean aplikatuko da.

Salbuespena ibilgailu batengatik baka-

rrik izango zaie aplikagarria horien onuradun diren subjeto pasiboiei.

%33 edo hortik gorako minusbalio-tasun maila dutenak izango dira pertsona minusbalituak.

Salbuespena gozatu ahal izateko interesatuek eskaera aurkeztu beharko dute, ibilgailuaren ezaugarriak, matrikula eta onuraren zergatia adieraziz. Udal administrazio honek salbuespena onartu ondoren, agiri bat luzatuko du hura eman dela frogatzeko.

Salbuespena aplikagarria izateko, ibil-

gailuaren titularrak udalerrri honetan egon beharko dute errolatuak.

BEHARREZKO DOKUMENTAZIOA

- Ibilgailuaren Zirkulazio baimenaren fotokopia.

- Ibilgailuaren Ezaugarri Teknikoen Ziurtagiriaren fotokopia.

- Gizartekintzak edo bere ordezkari erakunde edo agintari administrati- boak luzaturiko ziurtagiri originala. (udal-etxean fotokopia konpultsatua egingo da).

Lanera itzuli dira Ucineko langileak



Bi hilabete greban egin ondoren, Ucin enpresako langileek lanera bueltatzea erabaki zuten urtarrilaren 19ko asanbladan. Urtarrilaren 9an enpresak eginiko azken proposamena atzera bota zen urtarrilaren 13an eta urtarrilaren

16an egindako asanbladatan. Hilaren 19ko asanbladan, ordea, aurrera atera zen. Besteak beste, Ucinen lanean hasten den langilearen gutxieneko soldata hobetzea lortu da. Jada lanean hasiak zeuden langileen soldatak ere hobetu egingo dira.

EHNA tramitatzeko aukera berri bat izango da urtarrilaren 31n

Hilaren azken larunbatean, urtarrilak 31, Euskal Herriko Naziotasun Aitorpena edo EHNA tramitatuko dute berriro UHLko zinegotziek. Goizeko 11:00etatik eguerdiko 13:00etara udaletxean. Gogoratu hiru argazki eta errolda agiria behar direla (udaletxean eskatu behar da). Kostua: 15 euro.



Txalaparta jotzen ikasi nahi?

Zumarte Musika Eskolak txalaparta ikasteko aukera berri bat eskaini nahi die txalapartazaleei. Ikastaroa otsailean hasi eta ekainean bukatuko da. Izena eman nahi duenak Musika Eskolaren egoitzatik pasa beharko du.

Otsailaren 3an hasiko da txalaparta ikastaroa. Dena den, aurretik eman

beharra dago izena. Horretarako bi egun zehaztu dira: urtarrilaren 28a eta urtarrilaren 29a. Interesatuak 18:00etatik 20:00etara pasa behar dute Zumarte Musika Eskolako egoitzatik.

60 eurokoa da matrikularen prezioa, izena ematerakoan ordaindu beharrezkoa. Musika Eskolak zehaztu digunez, plazak mugatuak izango dira. Beraz, ez utzi azken ordurako.

ORGANO SAIO INTERESGARRIA

Urtarrilaren 22an bi organo jole trebe hurbilduko dira Salvatore parrokira. Jose Luis Franzesenak, Azkoitiko Udal Bandaren zuzendari eta Santa Maria Real parroikiko organojoleak, Barroko garaiko obrak interpretatuko ditu. M^a Carmen Azpeitiak, zumaiarra eta bertako San Pedro parroikiko organojole, Erromantiko garaiko hainbat obra eskeiniko dizkigu. Foru Aldundiak, Udalak eta Salvatore Parrokiak sustaturiko saioa 20:00etan hasiko da.

ERRAUSKAILUARI BURUZKO HITZALDIA

Urnietan jartzekoa den hondakin-errauskailua dela-eta, UHLk interesgarritzat jo du informazio hitzaldia antolatzea. Izan ere, aztertzen ari diren balizko kokapenen artean Zubieta dago.

Datorren ostegunean, urtarrilak 22, arratsaldeko 19:30etan errauskailuari buruzko hitzaldia antolatu du UHLk Udarregi Ikastolako aretoan. Arnasa, Errauskailuaren kontrako Urnietako plataformako kidea den Patxi Lozano eta, bestalde, Xabier Landa, San Markos Mankomunitateko lehendakari ohia izango dira hizlariak.

BUZTINZULOREN PLAKA GEHIAGO

Buztinzulo Zeramika Taldeak beste zazpi plaka egin berri ditu. Laster ipiniko dira Buztinzulok eginiko plakak ondoko baserri haueetan: Pelaionea, Goiz Eguzki, Olarriondo Zahar, Irubietta Berri, Txakurtxulo, Alamandegi Zahar, Barrenetxe Behekoa. Beste 13 plaka egiteko bidean dira.

DATAC ENPRESA BEGIPUNTUAN

Datata enpresako atxilotuei 1.200.000 euroko iruzurra leporatzen diete. Antza denez, enpresa honek legezkoak ez ziren software-ak eskaintzen zizkien bezeroei. Benetakotasun itxura egiteko zertifikatuak ere faltsuak omen ziren.

Herri berri on!

Garabiak nagusi dira gure inguruan. Zubietan, kaxkoxan eta Artzabalen eraikuntzahotsak dira nagusi. Herri baten bilakera etengabea bada ere, azken urteotako ekimenek herriaren mugak zabaldu dituzte. Mugak zabaltzearekin batera, herriko hainbat gune itxuraberritu egin dira. Udaletxe ingurua, esate baterako. Etxe berriekin batera, aldameneko kaleak ere apainduak izan baitira.

Artzabalgo urbanizazioarekin herriak

luzeran irabazi du. Olarriondo operazioarekin ere, porlanak beste eremu batzuk irabaziko ditu.

Baina aldaketa nabarmenena Zubietak pairatu berri du. Lanak amaitzeaz dira baina aldaketak begibistakoa dira. Aginagako pilotalekuarekin gertatu zen bezala, Zubietan ere bilgune berriak sortuko dira. Pilotalekuak beste itxura bat eman dio Zubietari, baina etxeek eta bide berriek ere beste nortasun bat eman diote Zubietari.



USURBILGO UDALETXE ONDOKO ETXEBERRIEK PLAZA HAU EKARRI DUTE.

Amaitzeaz da Artzabalgo urbanizazioa

Artzabalgo urbanizazioa amaituta Aegon behar zuen jada. Lehen fase batean, izaera pribatuko etxe batzuk eta babes ofizialeko beste hainbaten giltzak banatu ziren. Gainontzeko etxebizitzaren giltzak bigarren fase batean banatuko dira. Atzerapenez dabilta, baina jabeek epe laburrean jasoko dute etxebizitza berrietan sartzeko baimena.

Artzabalgo urbanizazioak herriaren luzera ekarri du. Bide batez, herriak gune-berde bat irabazi du. Ez bakarrik etxeen artean zabaldu den parkea, baita erreka aldameneko lur-eremua ere. Dena den, hasierako proiektuan hainbat aldaketa eman dira. Aurreko legegaldiko udal gobernua, Artzabalgo baserrian sagardoaren museoa eraikitzeko asmoa zuen. Bide batez, parkea edo berdegunea

sagastiekin osatu nahi zen.

ZAHAR EGOITZA, ARTZABALGO URBANIZAZIOAN

Baina egungo udal gobernua beste asmo batzuk ditu. Artzabalgo baserria zahar egoitzan bilakatu nahi du Luis Mari Ormaetxea alkatearen lan-taldeak: *“hori da gure apostua. Gure Pakea zahar-egoitzak 500 bazkide ditu. Jarduera kopuruak ere gora egin du eta azpiegitura mailan erantzun egokia eman nahi diogu. Artzabalgoa gune egokia izan daiteke, herriaren erdian”*.

Alkateak adierazi digunez, *“aurten zahar egoitza berriaren proiektua osatu nahi dugu eta datorren urtean exekutatu. Hori baino lehen, beste alderdiekin negoziatu beharko dugu baina proiektua bideragarria izan daiteke”*.

Sagastiak jada desagertu egin dira



ARTZABALGO URBANIZAZIOAK HERRIA LUZATU DU. OLARRIONDOKO OPERAZIOAK ERE, GAUZA BERA EKARRIKO DU.

proiektutik eta lorazainaren aholkuei kasu eginez, *“itzal gehiago eman dezaketen zubaitzak landatu dira. Sagastiak altura txikikoak dira eta zainketa konplikatzeko omen dute”*, azaldu digu Luis Mari Ormaetxeak.

Kalezarren dagoen garbategia, desagertzeaz

Bustintzulon, Txikiardin, Txokoalden, San Estebanen, Kalezarren... garbategi askoko herria izan da gurea. Garai berriekin balio praktikoan galdu dutena, kutsu sentimentalean irabazi dute eraikin hauek. Irudian agertzen dena, Kalezargo lagun askorentzat ezaguna izango da. Baina ez du luze iraungo.

Artzabalgo urbanizazioan, erreka ingurua itxuraberritu eta hainbat ibilbide

aurrikusita daude. Honek zuzenean eragin du irudian agertzen den garbategian.

Herrian dauden guztietatik azkenetakoa omen da. Arantzadi Zientzia Elkarteak egindako herriko elementu etnografikoen azterketan, ordea, garbategi honi ez zitzaion inolako baliorik aitoritu. Porlanez egina egon arren, era zarrarean aurkitu arren, akaso balio sinboliko handia izan dezake. Ala ez? Zure iritzia eman ezazu noaua.com web guneko foroan zabaldu dugun eztabaidan.



LASTER BOTAKO DUTE IRUDIAN DEN GARBATEGIA.

Beste Zubieta bat begibistan

Otsailaren 15ean amaituko dira Zubietako urbanizazio-lanak. Enpresa eraikitzaileak, behintzat, hala agindu du. Zubietako alkate den Juanjo Olaizolaren esanetan, ordea, behin eta berriz atzeratu dira amaiera-plazoak.

Epe laburrean bukatuko dira Zubietako urbanizazio lanak. Errepideak, argia, oinezkoen gunea eta pilotalekua bera ere denbora gutxian amaituko dituzte.


PILOTALEKUAREN PROIEKTUAN ALDAKETAK

Pilotalekuko hasierako proiektuak soilik aldagelak aurrikusten zituen; 3 x 20 metroko ekipamendua. Baina Juanjo Olaizolak esan digun moduan, "Zubietan ez dago lokal publiko bat. Azkenean, alda-

keta bat egitea lortu dugu eta 7x20 metroko bi solairuko ekipamendua lortu dugu. Honek obraren atzertzea ekarri du, baina lokal baten premia handia zen".

ERREBOTE PLAZA ERE BERRITUA IZANGO DA

Guraso Elkarte delako, Zubietako Pilota Elkarte delako, Jai Batzorde delako... mugimendua bada Zubietan eta beharrek eragin dute pilotalekuko hasierako proiektuaren aldaketa. Honek eragin duen gastua errebote plaza berritzeko diru-partidarekin egingo da. Erreboteko paretak margotuak izan dira baina berri-tze nagusiak datorren urterako utzi dira. Diru partida hori 2005eko aurrekontuetan aurrikusiko dela agindu dute Donostiako udal ordezkariak.



OTSAILAREN 15EAN AMAITUKO OMEN DIRA LAN GUZTIAK. ARGIA, BIDEAK, PILOTALEKUA... ORDURAKO MARTXAN IZANGO DIRA.

Usurbil, Donostia eta Zubietako agintariek batzorde berri bat osatu dute

Urtarrilaren 14an Usurbil eta Donostiako udal agintariek bildu ziren Zubietako Herri Batzarreko kideak. Bilera honetan, urbanizazioen mantenuaz hitz egin zen. Bide batez, Zubietak duen ahalmen juridiko-politikoaz eztabaidatu-ko duen batzorde bat osatu zen.

Laster amaituko dira Zubietako lanak. Ondorenean, mantenu-lanak datoz. Urtarrilaren 14ko bileran, hain zuzen, lan banaketa hau adostu zuten Usurbilgo eta Donostiako udal ordezkariak:

- Ura, estolderia, zaborra, kale-garbitza eta udaltzainak: Usurbilgo Udalaren esku.

- Argi-endarra, lorazaintza eta trafi-

koaren seinalizazioa: Donostiako Udalaren esku.

Bestelako gaiak ere eztabaidatu ziren. Herri Batzarreko kideak musutruk aritzen dira lanean. Bi udaletara joan-etorrian ibili gabe, zubietarrek aholkulari propioak izan nahi dituzte. Honekin loturik, Zubietak duen ahalmen juridiko-politikoaz eztabaidatzeko batzorde bat osatzeko erabaki zuten. Usurbilgo Udalaren izenean, Begoña Garmendia izan zen ordezkari izendatua. Donostiako Udalak Txintxurreta teknikariaren esku utzi du ordezkari-



IRUDIAN, DONOSTIAKO ENRIQUE RAMOS ZINEGOTZIA; USURBILGO SALOME PORTU ZINEGOTZIA ETA LUIS MARI ORMAETXEA ALKATEA; ZUBIETAKO ALKATE JUANJO OLAIZOLA ETA HERRI BATZARREKO KIDEAK.

lana. Eta Zubietako Herri Batzarrak, aldiz, Xabier Arregi izendatu du batzorde horretako kide.

Sagarrondotik kupelara

Hasi da txotx garaia. Sagardozelek ondo daki-te noiz hasi eta noiz amaitzen den sagardo berria dastatzeko aldia. Baina gero eta lehenago hasten da txotx garaia. Aste Santura bitartean, aurreko udazkenean egindako sagardoaz gozatzeko aukera izango dugu. Sagardotegiak ere, aurtengo "erromesaldia" jasotzeko prest dira.

Azpian zerrendatuta daude inguruan ditugun sagardotegiak. Bide batez, desafio txiki bat proposatu nahi izan dugu.

Baina "Sagardotegietako erro-mesaldiari" aurre egiteko bidaia-lagunak behar badituzu, lasai. Horretarako ere prest dago gure herria. Akaso lagungarri izan daiteke inguruko aterpeekin osatu dugun zerrenda.

"SAGARRONDOTIK" JAIA, BEGIBISTAN

Euskal Herriko II. Sagardo Mostra otsailaren amaieran egingo da. Hernanira, Astigarragara eta Urnietara bezalaxe, Usurbila ere iritsiko da jai honen oihartzuna.



TXOTX GARAIAK EGINGO DA SAGARRONDOTIK MOSTRAREN BIGARREN EDIZIOA.

Ezetz denak egin

■ ARAETA SAGARDOTEGIA, Zubieta

EGUNERO IREKITA

Telefono zenbakiak: 943 36 20 49 / 943 36 66 04.

Web gunea: www.araeta.com

■ SAIZAR SAGARDOTEGIA, Kalezar

IGANDE GAUA ETA ASTELEHEN EGUERDIA ITXITA

Telefono zenbakiak: 943 362 228.

Web gunea: www.sidrassaizar.com

■ AGINAGA SAGARDOTEGIA, Aginaga

ASTELEHENEAN ITXITA

Telefono zenbakiak: 943 36 67 10 / 943 37 06 68.

■ ASTIAZARAN SAGARDOTEGIA, Zubieta

IGANDEAN ITXITA

Telefono zenbakiak: 943 36 12 29.

■ URDAIRA SAGARDOTEGIA, Aginaga

IGANDE GAUAN ITXITA

Telefono zenbakiak: 943 37 26 91.

■ AIALDE BERRI Sagardotegia, Santuenea

IGANDEAN ITXITA

Telefono zenbakiak: 943 36 50 31 / 670 02 77 31.

■ ARRATZAIN Sagardotegia, Aginaga

ASTELEHENEAN ITXITA

Telefono zenbakiak: 943 58 09 74.

KANPOKO LAGUNAK NON JASO?

- KAROBI, Zubietako nekazaritza-etxea. 943 360 635.
- BARAZAR, Zubietako nekazaritza-etxea. 943 363 358.
- IBARROLA, Kalezargo nekazaritza-etxea. 943 363 007.
- ZABALEA, San Estebango nekazaritza-etxea. 630 562 588.
- ATXEGA, Atxegaldeko jauregia. 943 371 150.
- ZALDUA, Zubietako hotela. 943 366 620.

Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 43
943 37 09 13

Olandegia - Gozotegia

LABE-GOXO

ITZ G
HEIKTEN

SAGARRONDOTIK, IUR
KANTZINA, ER...
Tlf. 33 217

Euskal Herriko II. sagardo mostra

PATRI

JAIETXEA

- Eguneroko sarruak
- Plaster berrimatuak
- Ogintzeak

Telf: 943 36 27 25
Kale nagusia, 14

Zumarte Musika Eskolak ere web orrialdea jarri du martxan

Zumarte Musika Eskolak ere Interneterako jauzia egin du. KZgunearen laguntzarekin web orrialde mamitsu bat osatu berri dute Zumarte Musika Eskolako kideek. Sar zaitez www.zumarte.org web orrialdean eta musika eskolaren xehetasun guztiak jasoko dituzu.

Albisteak, Argazki bilduma, Aurkezpena eta Gomendioak izeneko atalekin osatzen da Zumarteren web orrialdea. Eskolaren historian, helburuetan sakontzeko aukera paregabea eskaintzen du web orrialdeak. Aipatzekoa ere egin duten "argazki albuma".

Gure web orrialdetik, noaua.com gunetik ere sar zaitezke Zumarteren orrialde elektronikoan.



Inkestak noaua.com gunean

Ikastetxeetan erlijio ikurrak kenduko al zenituzke?	
Bai	% 50.00
Ez	% 25.00
Berdin zait	% 25.00

San Sebastian eguna ospatzeko ohitura al duzu?	
Bai	% 12.50
Ez	% 75.00
Batzutan	% 12.50

:: ASTE HONETAKO INKESTA ::
Urbanizazio berria onuragarria izango al da Zubietarentzat?

Bai Ez
 Denborak esango du

Botoa eman www.noaua.com web gunean

Interneten dira Gabonetako irudi esanguratsuenak

Argazki kamara eskutan hartu eta batetik bestera ibili ginen Eguberrietako irudi esanguratsuenak bildu asmoz. Argazki horietako batzuk noaua.com web sarean ipini ditugu. "Gabonetako irudiak" atalean klik egin eta begibistan izango dituzu argazki esanguratsuenak.

Zure irudiak igorri Gero eta kamara digital gehiago dago. Eguberrietan ere, dexente ikusi ditugu. Argazki horietako bat gure web orrian ikusi nahi baduzu, erredakzioa@noaua.com helbidera bidali irudia eta gustura argitaratuko dugu.



Osasun zerbitzuak gaurkotu egin ditugu

Gure web orrialdean, noaua.com gunean, osasun zerbitzu ugari bildu ditugu. Tartean, odol emileen eta goardiako farmazien egutegiak. Jada 2004ko datak ipini ditugu sarean. Beraz, hamabosteroko datu horiek aldizkari honetan bertan jasoko dituzu; eta urte osokoak, aldiz, noaua.com web gunean dituzu.

GLG
garraioak
 ZABOR BILKÆT

TELF: 943 37 01 46

H n k n Utz n n, s l z

USU ILG H TZ KLINIK

FE N N E EZ-M SS NENNINGE
 NT NI E N L UIZ E

K I N U S , 2 I C 2 17
 11f 3 37 7 USU IL

Denak Aginagako pilotalekura

Jada martxan da Hego Euskal Herriko pilota elkarteekin osatzen txapelketa berria. Andatzpe-Peña Pagola elkarteak izan da ekimen honen sustatzaileetako bat. Gure ordezkarien lehen saioa larunbat honetan izango da, hilak 24, Aginagako pilotalekuan: 17:00etatik aurrera, Altsasuko taldea izango da lehen aurkaria.

Txapelketa honen lehen edizioan 24 elkarte lehiatuko dira, tartean Andatzpe-Peña Pagolako kideak. Hiru mailatan jokatu da (senior, jubenil eta kadete mailak) eta kanporaketak jardunaldi bakarrekotako izango dira. Beraz, hilaren 24ko saioan Andatzpe-Peña Pagolak galten badu, zuzenean kalera. Txapelketa bizia izateko ezaugarri guztiak ditu, tanto gehien egiten dituen elkarteak sailkatuko baita.

Enrike Huizi aritu da antolatzaile lanean. Antza denez, Hernaniko elkartearen

egitasmoa da hau, Rufino Rekalde delegatuarena hain zuzen: *“duela bi hilabete hasi ginen antolaketa lanean. Aginagako pilotalekuarengatik sartu gara txapelketan. Aginagarentzat oso polita da, pilotaleku egin berrian ikuskizun ederra eskaintzeko aukera dago eta Aginagari ere bizitasuna eman diezaike. Aginagan laguntzeko prest zeuden eta horregatik egin dugu aurrera”*. Antza, honakoan pilota elkartei eman zaie protagonismoa.

Tanteo onena eskuratzen duenak irabaziko du, honek ikusgarriago egingo ditu partidak, baina Huiziren esanetan, *“talde erregularrenak egingo du aurrera”*, taldeko bakoitzeko hiru bikoteak –kadete, jubenil eta senior mailakoak– fin ibili beharko dutela, alegia.

Andatzpe-Peña Pagola elkarteak nahiko justu ikusten du Huizik, baina ilusioz ekin diote txapelketari. Sariak onak dira eta honi esker maila handiko pilotariak etorriko dira. Aipatzekoa da Udalak egin duen ahalegina, Hernani eta Urnietako



KADETE, JUBENIL ETA SENIORRAK LEHIATUKO DIRA TXAPELKETA BERRIAN.

Udalek egin bezala, 3.000 eurorekin lagundu baitu Usurbilgoak.

Estrainekoz, gure ordezkariak gipuzkoarrak ez diren pilotariekin neurtu beharko dituzte indarrak. Eta hori ere zor zaio txapelketa hasi berri honi. Ez ahaztu, gure ordezkarien lehen saioa, urtarrilaren 24an dela, 17:00etatik aurrera Aginagako Pilotalekuan. Aurrez aurre, altsasuarrak.

Asier Arruti izango da gure ordezkarietako bat

Hizpide dugun txapelketa honetan Asier Arruti ikusteko aukera izango dugu. Afizionatueta bigarren urtea du honakoa eta jada finaleraino jokatzera ohitzen hasi da 19 urteko gazte hau. Aspaldiko partez, Andatzpe-Peña Pagolak badu maila handiko atzelaria.

Altzako Txapelketa Bergarako Azagirrerekin irabazi zenuen, bitxia ezta?

Antolatzaileek egin zituzten bikoteak. Ondo moldatu nintzen berarekin eta gustura ibili ginen.

Gipuzkoa mailako txapelketan, berriz, zu eta Xabi Errasti Javi Sanchorekin aritu zarete. Nola moldatzen da 19 urteko gazte bat 40 urteko pilotari batekin?

Ondo. Elkarrekin entrenatzen dugu eta konfidantza daukagu, lehengo urtean ere jokatu nuen berarekin.

Ondo hasi zara afizionatueta. Profesionalen mundua urruti al dago?

Nik orain ez dut helburu zehatz bat. *Hobby*tzat hartzen dut pilota. Goizetan Urnietan ari naiz lanean eta arratsaldeak libre ditut entrenatzeko.

Dena den, afizionatueta zauden aldetik, serioxeago hartu beharko duzu?

Gure adinean badira gimnasioan eta prestatzaile fisikoekin dabil-

tzanak. Astelehenetan Atanora joaten naiz Añorgakoekin; asteazkenetan hemen ibiltzen naiz; eta, Federazioak deituta, hamabostean behin beste hamar afizionatuekin batera teknifikazioan aritzen naiz.



TXU UT



r t

t musk ts n

S n Est n k l , l
T I 3 3



Usurbil Autoak, S. C. L.

Zerbitzu Ofiziala

Zumartegi Poligonoa
Aitezarra kalea, 1
20170 USURBIL

Tlf: 943 36 10 79
Faxa: 943 36 62 92

Judo taldea, berriz ere onenen artean

Aurretik esanda genuen. Usurbilgoa da Euskal Herriko judo talde onenetakoa. Esaerak dio goi mailara iristea zaila bada, are zailagoa dela mantentzea. Bada Esteban Arrillagak zuzentzen duen taldeak elitean mantentzea lortu du. 2003ko datuei begiratzea besterik ez dago.

Judo Taldeak igorri digun prentsa-oharrak dioenez, "2003 urteko balantzea positiboa izan da; Gipuzkoako Txapelketetan 48 domina lortu ditugu,

hautariko 25 urrezkoak izan dira. Euskadikoetan 34 domina lortu ditugu eta urrezkoak 20 izan dira. Eta azkenik, Espainiako Txapelketetan 6 domina lortu ditugu: bat urrezkoa, bi zilarrezkoak eta hiru brontzezkoak".

Usurbilgo Judo Taldeak, gainera, askotan igaro ditu Euskal Herriko mugak. Iaz, esate baterako, Tunez, Alemania, Frantzia, Portugal eta Koreako Nazioarteko Txapelketetan lehiatu zen. Iazko emaitzak berdintzea edo hobetzeko asmoarekin ekin diote 2004. urteari. Zorionak eta zorte on!



GIPUZKOAKO TXAPELKETETAN 48 DOMINA LORTU ZITUEN USURBILGO JUDO TALDEAK.

ANDATZAKO EGUTEGIA MARTXAN

Andatza KKEko kideak Aralar inguruko itzuliaren lehen etapa egitera abiatuko dira otsailaren 15ean, igande.

KIROL JARDUNA EZTABAIDAGAI

Luis Mari Zulaika Heziketa Fisikoko irakasle-espezialista, pedagogo eta psikologian doktorea da eta hainbat galdera argitu asmoz hurbildu zen Udarregi ikastolara. Haurren formakuntzarako desegokiak diren jarduerak aztertu zituen Zulaikak eta, bide batez, guraso egoikiaren dekalogoaz azaldu zuen. Gurasoentzako hitzaldi interesgarri hau Kirol Patronatuak antolatu zuen, baina lagun gutxi bildu ziren.



Hurrengo saioak !

FUTBOLA

Urtarrilak 24, larunbata
Emakumezkoen liga: Vasconia CD - Usurbil FT.



Urtarrilak 31, larunbata
Emakumezkoen liga: Usurbil FT- Dunboa-Eguzki B.
16:30etan Harane futbol zelaian.

Otsailak 7, larunbata
Emakumezkoen liga: Usurbil FT- Tolosa CF.
16:30etan Harane futbol zelaian.

ESKUBALOIA

Urtarrilak 24, larunbata
Helduak: Usurbil KE - Urnieta KE.
Kadeteak: Usurbil KE - Donibane Eskubaloia.

Urtarrilak 31, larunbata
Helduak: Donibane Majestik - Usurbil KE.
Kadeteak: Usurbil KE - Gatz-Museoa-Jakion.

Otsailak 7, larunbata
Helduak: Atsedan.
Kadeteak: ITE Hondarribia - Usurbil KE.

PILOTA


Taldeko Pilota Txapelketa Aginagan
Urtarrilak 24, larunbata
Andatze-Peña Pagola/ Altsasuko taldea. 17:00etan Aginagako pilotalekuan.

Urtarrilak 31, larunbata
Lemoa/ Zularralde (Burlata). 17:00etan Aginagan.

Antolatzailea: Andatze-Peña Pagola, Hernani eta Urnieta pilotalekuek.
Babesleak: Urnieta, Hernani eta Usurbilgo Udala.

L T ILL E
ITU GINTZ G SET E GINTZ
INST L KUNTZ K
IZTTTX K L F . (3) 3 2 35-3 33
F.H.F M I 21

TALDEKO EUSKAL OKELA
UT ZE ITZU
ETXEK
K NOEL TU K
h k k l , 4
T H 43 3 57 42



Miramonen bisi - Kaixo lagunok:

Gu Lehen Hezkuntzako seigarren mailako ikasleak gara. Joan den urriaren 17an Donostiako Miramon Zientziaren Museora joan ginen. Bertako planetarioa ikusteko aukera ere izan genuen.

Aurki itzazu hizki salda honetan izar bat, satelite bat eta bederatzi planeten izenak:

Eguzkia, ilargia, merkurio, jupiter, artizarra, lurra, urano, saturno, martitz, pluton eta neptuno.




Hizki salda



M	L	H	J	U	L	V	F	E	R	W
A	E	P	I	N	G	U	I	B	O	N
N	F	R	Z	T	I	T	R	A	M	E
S	G	T	K	J	H	P	M	R	K	P
A	I	K	Z	U	G	E	A	R	A	T
T	L	N	T	P	R	G	R	A	K	U
U	A	O	X	I	L	I	T	Z	A	N
R	R	T	O	T	U	R	O	I	Ñ	O
N	G	U	T	E	A	R	R	T	E	R
O	I	L	U	R	R	E	I	R	O	R
W	A	P	U	N	T	O	N	A	R	U

2004ko danborrada



SAN SEBASTIAN EGUNAREN BEZPERAN DANBOR-FESTA EDERRA ESKAINI ZUTEN UDARREGIKO IKASLEEK. EGURALDI ONAK IKUSLE ASKO ERAKARRI ZITUEN.

Eusko Tren-en neguko tren ordutegia

Donostia	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Donostia
05.47*	06.03*	06.20*	06.08*	06.24*	06.39*
06.17*	06.33*	06.50*	06.38*	06.54*	07.09*
06.47*	07.03*	07.20*	07.08*	07.24*	07.39*
07.17	07.33	07.50	07.38*	07.54*	08.09*
07.47	08.03	08.20	08.08	08.24	08.39
08.17*	08.33*	08.50*	08.38*	08.54*	09.09*
08.47	09.03	09.20	09.08	09.24	09.39
09.52/		10.21/	10.05	10.24	10.39
10.17	10.33	10.50	11.08	11.24	11.39
10.47	11.03	11.22	11.22/		11.47/
11.51	12.05	12.20	12.08	12.24	12.39
12.17*	12.33*	12.50*	12.38*	12.54*	13.09*
12.47	13.03	13.20	13.08	13.24	13.39
13.17*	13.33*	13.50*	13.38*	13.54*	14.09*
13.47	14.03	14.20	14.08	14.24	14.39
14.17*	14.33*	14.50*	14.38*	14.54*	15.09*
14.47	15.03	15.20	15.08	15.24	15.39
15.17*	15.33*	15.50*	15.38*	15.54*	16.09*
15.47	16.03	16.20	16.08	16.24	16.39
16.17*	16.33*	16.50*	16.38*	16.54*	17.09*
16.47	17.03	17.20	17.08	17.24	17.39
17.17*	17.33*	17.50*	17.38*	17.54*	18.09*
17.47	18.03	18.20	18.08	18.24	18.39
18.17*	18.33*	18.50*	18.38*	18.54*	19.09*
18.47	19.03	19.20	19.08	19.24	19.39
19.17*	19.33*	19.50*	19.38*	19.54*	20.09*
19.47	20.03	20.20	20.08	20.24	20.39
20.21/		20.48/	21.08	21.24	21.39
20.47	21.03	21.20	22.07/		22.32/
21.47	22.03	22.20	22.38	22.54	23.09

* Astegunetan bakarrik / Zerbitzu berria, egunero

Eusko Tren-en neguko autobus ordutegia

Donostia	Urbil	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Urbil	Donostia
07.40		08.05	08.25	06.45	07.05		07.30
08.00		08.25**		06.45	07.05	07.10	07.30
08.00	08.25	08.35	08.55	07.15	07.35		08.00
08.40		09.05	09.25	07.45	08.05		08.30
09.00	09.20	09.30		07.45	08.05	08.15	08.40
09.00	09.25	09.35	09.55	08.15	08.35		09.00
09.40		10.05	10.25	08.45	09.05	09.15	09.40
10.00	10.25	10.35	10.55		09.30	09.35	10.00
10.40		11.05	11.25	09.45	10.05		10.30
11.00	11.25	11.35	11.55	09.45**	10.05	10.15	10.40
11.40		12.05	12.25		10.30	10.35	11.00
12.00	12.20	12.25**		10.45	11.05		11.30
12.00	12.25	12.35	12.55	10.45	11.05	11.15	11.40
12.40		13.05	13.25	11.45	12.05		12.30
13.00	13.20	13.30		11.45	12.05	12.15	12.40
13.00	13.25	13.35	13.55 #	12.45	13.05		13.30
13.40		14.05	14.25	12.45	13.05	13.15	13.40
14.00	14.20	14.30**			13.30	13.35	13.55*
14.00	14.25	14.35	14.55	13.45	14.05		14.30
14.40		15.05	15.25	13.45	14.05	14.15	14.40
15.00	15.20	15.30			14.30	14.35	15.00
15.00	15.25	15.35	15.55	14.45	15.05		15.30
15.40		16.05	16.25	14.45	15.05	15.15	15.40
16.00	16.25	16.35	16.55		15.30	15.35	15.55*
16.40		17.05	17.25	15.45	16.05		16.30
17.00	17.25	17.35	17.55	15.45	16.05	16.15	16.40
17.40		18.05	18.25		16.30	16.35	17.00
18.00	18.20	18.30		16.45	17.05		17.30
18.00	18.25	18.35	18.55	16.45	17.05	17.15	17.40
18.40		19.05	19.25	17.45	18.05		18.30
19.00	19.20	19.25**		17.45	18.05	18.15	18.40
19.00	19.25	19.35	19.55	18.45	19.05		19.30
19.40		20.05	20.25	18.45	19.05	19.15	19.40
20.00	20.20	20.30			19.30	19.35	20.00
20.00	20.25	20.35	20.55#	19.45	20.05		20.30
21.00	21.20	21.25	21.45	19.45	20.05	20.15	20.40
21.00	21.25	21.35	21.55	20.45	21.05	21.15	21.40
22.15	22.35	22.45	23.05	21.15	21.35	21.40	22.00
22.00	22.25	22.35	22.55	21.45	22.05	22.15	22.40
22.30	22.55	23.05	23.25	23.15	23.35		00.00
00:00		00.25	00.45	01.15	01.35		02.00
02:00		02.25	02.45	03.15	03.35		04.00
04:00		04.25	04.45	05.15	05.35		06.00
06:00		06.25	06.45				

**Aiarrino # Larunbatetan, Orion autobus aldaketa Aiara

Soilik larunbata gauzez / Astegunetan Larunbat lanegunetan

Goardiako farmaziak

Urtarrilak 23, ostirala
E: Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte
G: Bilbao, Urnieta 7 Hernani

Urtarrilak 24, larunbata
E: Gil, Nagusia 24 Lasarte / Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil
G: Gomez, Nagusia 14 Hernani

Urtarrilak 25, igandea
E: Gil, Nagusia 24 Lasarte
G: Gomez, Nagusia 14 Hernani

Urtarrilak 26, astelehena
E: Gil, Nagusia 24 Lasarte
G: Bulnes, Grupo Etxeberri 1 Hernani

Urtarrilak 27, asteartea
E: Acha-Orbea, Hipodromoa, 6 Lasarte
G: Chucla, Kardaberaz 48, Hernani

Urtarrilak 28, asteazkena
E: Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte
G: Correa, Perkaiztegi 8 Hernani

Urtarrilak 29, osteguna
E: Orue, Jaizkibel 2 Lasarte
G: Aizpuru, Latxunbe Berri 11 Hernani

Urtarrilak 30, ostirala
E: De Miguel, Nagusia 32 Lasarte
G: Elizondo, Zumea 20 Andoain

Urtarrilak 31, larunbata
E: Acha-Orbea, Hipodromoa 6 Lasarte
Oa Kontzeju Zaharra 11 Usurbil
G: Bilbao, Urnieta 7 Hernani

Otsailak 1, igandea
E: Acha-Orbea, Hipodromoa 6 Lasarte
G: Bilbao, Urnieta 7 Hernani

Otsailak 2, astelehena
E: Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte
G: Gorospe R.Arregi 12 Andoain

Otsailak 3, asteartea
E: Gil, Nagusia 24 Lasarte
G: Zatarain Elizondo 6 Andoain

Otsailak 4, asteazkena
E: Acha-Orbea, Hipodromoa 6 Lasarte
G: Ansa, Ondarreta 8 Andoain

Otsailak 5, osteguna
E: Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte
G: Arzallus, Larramendi 16 Andoain

Otsailak 6, ostirala
E: Orue, Jaizkibel 2 Lasarte
G: Diaz, Nagusia 19 Andoain

E: Egunez G: Gauzez E/G: Egunez eta gauzez

2004ko egutegi osoa noaua.com helbidean

Zubieta-Donostia TST autobusak

ASTEGUNETAN
Zubieta-Donostia
7:55*/ 9:30(T)/ 13:15(T)/ 14:35*(T)/ 19:15(T)
Donostia-Zubieta (Gipuzkoa plazatik)
7:15* / 9:00/ 12:45(T)/ 13:45*/18:45

LARUNBATETAN
Zubieta-Donostia
8:15(T) / 12:45 / 15:15(T) / 21:35(T)
Donostia-Zubieta (Gipuzkoa plazatik)
12:15(T) / 14:30(T) / 21:00(T)

JAI EGUNETAN
Zubieta-Donostia
11:25(T)/ 13:30(T)/ 15:30(T)/ 21:35 (T)
Donostia-Zubieta (Gipuzkoa plazatik)
11:00(T)/ 13:00(T)/ 15:00(T)/ 21:00 (T)

* Eskola egunetan
T Autobus aldaketa beharrezkoa da. 943 361740.

Datorren Noaua!

Otsaila							
As.	Ar.	Az.	Ox.	Ost.	La.	Ig.	
						1	
2	3	4	5	6	7	8	
9	10	11	12	13	14	15	
16	17	18	19	20	21	22	
23	24	25	26	27	28	29	

Hurrengo alea ●

Bai esan?

- Udala..... 37 19 51
- Udaltzaingoa..... 36 11 12
- Obrak eta Zerbitzuak..... 37 01 48
- Anbulategia..... 36 20 13
- Udarregi ikastola..... 36 12 16
- Udarregi (Kalezar)..... 36 45 00
- Agerialde ikastetxea..... 36 38 95
- Oiardo kiroldegia..... 37 24 98
- Zumarte..... 37 15 94
- Etumeta..... 37 20 01
- Taxi geltokia..... 36 21 78
- D.Y.A..... 46 46 22
- Ertzantza..... 112
- Suhiltzaileak..... 112
- Larrialdiak..... 112
- Anbulantziak..... 112
- Gure Pakea..... 37 32 28
- Gure Elkarrea..... 37 17 51
- Arrate egoitza..... 36 63 40
- Eusko Tren..... 47 09 76
- Noaua! aldizkaria..... 36 03 21
- Bake epaitegia..... 37 23 36
- Oa farmazia..... 37 60 76
- Iturralde farmazia..... 36 33 95
- Zubietako Batzarra..... 37 20 77
- Argindarra (Iberduero)..... 47 09 76

Oharrak !

ETXEBIZITZA

- Alokairuzko pisu baten bila nabil, Usurbilen edo inguruan, konpartitzeko. 696 993 089.
- Kaxkoan etxebizitza bat salgai. 670 90 27 62.
- Pisua alokatu edo konpartitu nahi nuke. Nirekin harremanetan jaritzeko deitu, 647 973 844.
- Pisu bat bilatzen ari naiz, alokatzeko edo konpartitzeko. Oso urgentea da beraz, pisurik alokatzeko baduzu edo gelaren bat, deitu mesedez hainbat arinen 615 71 01 64 telefonora (Gotzon).
- Estudio bat edo apartamendu bat alokatuko nuke. Tf: 677 082 305.
- Alokairuzko etxe baten bila gabiltza. 670 532 443.
- Alokairuan dagoen pisua edo apartamendua erosiko nuke. 943 364469.
- Bost pertsonako familia bat gara eta alokairuan dagoen pisu baten bila gabiltza Usurbil edo inguruko herrietan. 620646769

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Garaje itxiak saltzen ditut Kale Nagusian. 30 m, 18.000 euro / 15 m 7.800 euro. Telefonoa: 943 37 23 68.

LANPOSTUAKLan-eskaerak

- Goizetan etxeko lanak egiteko prest nago. 943 37 64 49.
- Umeak zainduko nituzke, edozein ordutegian. Deitu 943 37 10 32 telefono zenbakira.
- Eskolan laguntzarik behar al duzu? Dei iezadazu 943 360 754 (Ana).
- Neska bat eskaintzen da umeak, etxeko lanak edo pertsona helduak zaintzeko. 619 844 556.
- Umeak zainduko nituzke, arratsaldez bi orduz. Tf: 647 220 966 (Mari Karmen).
- Taberna batean egingo nuke lan edo antzeko zerbaitetan, Deitu hona: 652 757 495.

Lan-eskaintzak

- Patri jatetxean zerbitzari bat behar dugu. Deitu 943 36 27 25 telefono zenbakira.
- Kopiagintza eta grafiko zerbitzueta-ko Usurbilgo denda berri batean laguntzaile bat behar dugu (neskak nahiago dira). Interesatuak deitu Tf: 687470177.
- Bulego txiki bat alokatzen da kaxkoan, diseinatzaile edo komertzialei lehentasuna emango zaie (neskak nahiago dira). Interesatuak deitu Tf:687470177.
- Langile bat behar dugu tabernan lan egiteko, larunbata eta igandetarako. Interesatuak deitu zenbaki honetara: 943 360 217.
- Tabernari bat behar dugu. Deitu telefono hauetara: 943 360 217.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Duela gutxi koilarea galdu nuen Iturralde botikatik kaxkora bidean. Topatu baduzu deitu 943 36 11 15 telefono zenbakira.
- Arratoi txakur kumeak oparitzen ditugu. Deitu 943 360 759 telefono zenbakira.
- Laguntzaile bat behar da Lasarteko ileapaindegi baterako. 943 37 71 90 / 629 402181.
- Urbilgo bus geltokian argazki marko handi bat tela puska bat "punto de cruz"-ean egina ahaztu genuen. Topatu baduzu deituidazu: 94337 20 34.
- Urrezko pultsera bat galdu nuen Munalurra auzoan (Olarrondo inguruan). Topatu baduzu deitu 943362779 telefono zenbakira.

IGELTSE ITZ
t
INTU

943 36 11 15
943 36 27 25
943 36 11 15
943 36 27 25

Txerrimunik ordainetan !

**Zorionak Paula!**

Urtarrilaren 28an 4 urte egingo ditu Paula Francok. Zorionak eta muxu handi bat etxeko guztien partez! Ondo pasa zure egunean!!!

**Zorionak Ane eta Manex!**

Urtarrilaren 18an Manexen urtebetetze eguna izan zen. Anek, ordea, urtarrilaren 27an ospatuko ditu bere urteak. Zorionak bioi eta muxu asko etxeko partez!

JAIOTZAK

- **Elene Alustiza Egileta**
2003ko abenduaren 29an.
- **Ixone Sanchez Encinas**
2004ko urtarrilaren 8an.

HERIOTZAK

- **Maria Iturrioz Amundarain**
2004ko urtarrilaren 2an, 75 urte zituela.
- **Manuela Alkorta Zabala**
2003ko abenduaren 21ean, 84 urte zituela.



Agenda !

URTARRILAK 22, OSTEGUNA

- 19:30etan errauskailuari buruzko hitzaldia Udarregi Ikastolan. Hizlariak: Arnasa plataformako Patxi Lozano eta Xabier Landa, San Markos Mankomunitateko lehendakari ohia.
- 20:00etan organo kontzertua Salbatore Parrokian, Jose Luis Franzesena eta M^a Carmen Azpeitiaren eskutik. Foru Aldundiak, Udalak eta Salbatore Parrokiak antolatuta.

URTARRILAK 23, OSTIRALA

- "Ten O'Clock" taldearen kontzertua Olarrondoko Jazz Kanean. Blues & Jazz zirkuitua. 23:30etatik aurrera.

URTARRILAK 26, ASTELEHENA

- Odol-ematea herriko anbulategian. Arratsaldeko 19:00etatik 21:00etara.

URTARRILAK 31, LARUNBATA

- EHNA tramitatzeko eguna. 11:00etatik 13:00etara Udaletxean. 3 argazki eta errolda agiria behar dira (udaletxean eskatu). Kostua: 15 euro.

OTSAILAK 4 ASTEAZKENA

- Santa Ageda.

OTSAILAK 15, IGANDEA

- Aralar inguruko itzuliaren lehen etapa. Antolatzailea: Andatza KKE.

KZgunea

NagusiWeb (3. adiakoentzat)


- Urtarrilak 23-29, 16:00-18:00.

Azterketak

- IT Txartela, Urtarrilak 30 ostirala arratsaldeko 16:00etatik 18:00etara.

943361412 / tutor.usurbil@kzgunea.net

Literaturaren txokoa !



Kolosala da Sarriren berria

Gerra hor dabil edonon oraindik, bizitzaren eta ederra eta samurra den guztiaren aldamentetik, baina laster helduko da zirkoa.



Munduaren ordu agoniko hauetan etorriko da, eta kolosala izango da. Zirkoa Alemaniatik helduko da. Letrero handi honekin: Cirque Krone. Eta tren bagoi pilo batekin, elefanteekin, lehoiekin, tximinoekin, pailazoeekin, ezpata irens-

leekin, emakume bizardunekin. Globo saltzaileak ere etorriko dira euren koloretako planetekin. Kalaportura iritsiko dira guztiak. Kolosala izango da. Eta orain alemanek Frantzia okupatu dutenez gero, agian lehenago ailegatuko da... Sarrionandiaren liburu berria giro horretan kokatzen da.

Fitxa teknikoa:

Egilea: Joseba Sarrionandia.

Argitaletxea: Txalaparta.

ISBN: 84-8136-358-8.

Orrialde kopurua: 142 or.

Salneurria: 14 euro.

Egin kontu !

Bertso Eguneko afaria, Araetan

Urtarrilaren 24ean, larunbata, XXXV. Bertso Eguna ospatuko dute Donostian. Era askotako hogeita hamalau edizio ezagutu ditu Bertso Egunak, 1967an Uztapideri eskaini zitzaion hartatik hasita. Donostian eta San Sebastian Egunaren inguruan antolatu ohi da, bertako Kultur eta Turismo Ekintzetxearen babesaz. Donostiako hainbat antzoki, kiroldegi eta pilotalekutatik igaro ondoren, Kursaal berrian antolatu dira azken hiru edizioak, eta hala antolatuko da iragartzen ari garena.

Azken urteetako joerari jarraituz, bi atal izango ditu ekitaldiak:

- Ekitaldi nagusia, Kursaalgo Areto Nagusian, 18:00etan. Bertsolariak: Andoni Egaña, Igor Elortza, Sebastian Lizaso, Maialen Lujanbio, Angel Mari Peñagarikano, Jon Maia, Iñaki Murua eta Unai Iturriaga. Gai-jartzaile lanean, Josu Goikoetxea.

Afalosteko ekitaldia Araeta sagardotegian izango da, 21:00etatik aurrera.

Bertso Egunerako sarrerak salgai daude. Telefonoz (943 217 798) eta www.bertsozale.com web gunean.

JU NTX
ur n
k l n u s l U s u r l
S/

al s p s t e r a


F t x k
F l x k k l r t n
I s f k z k (I N z n t)
F x z r t z u (s - t z k)
I n n k k (t)
r t k n t
E n k u - s i k (w r e . k r . l k d u r)
Z u r - z k u z l - n

Juan de Garay kalea
20160 Lasarte-Oria
Telf: 943 37 64 24 Fax: 943 37 61 55

Menuak asteen zehar eta

ZENDOJIA
taberna
Kale Nagusia 35
Telf. 943374021
asteburutan Menu bereziak

KOADERNATZEKO GARAIA DA!



2003ko NOAUA! guztiak koadernatzeko garaia da. Ez utzi azken ordurako. Tapak eta aurkibideak NOAUA!ko egoitzan, Lizardin edota Lauroken eskura ditzakezu: - Tapa edo azala, 3 euro
- Aurkibidea, 1,20 euro
- Bazkideak doan

Koadernaketa Lizardin edo Lauroken: 11 euro

HASI DA AURTENGO TXOTX GARAIIA!



Araeta



Egunero txotxako sagardoa dastatzeko aukera!

Tel: 943 36 20 49 - 943 36 66 04
Faxa: 943 36 60 73
Arbitzabidea 20.160 ZUBIETA
www.araeta.com

Fain duzu aurtengo sagardoa. Txotx!

SAIZAR

Sagardotegia

Kalezar Auzoa, 22

ZUBIETA
GIPUZKOA

Tel. 943 362 228

www.sidraesaizar.com

TXOTKETIK

eta botiletan
salgai

Urte guztian egunero irekita
astelehenetan ezik.

AGINAGA

SAGARDOTEGIA



Tel: 943 36 67 10 - 37 06 68 AGINAGA

ASTIAZARAN

SAGARDOTEGIA



Zubieta, tel: 943 36 12 29

Irudi berri bat
denboraldi berri batentzako

-Igande gauetan itxita

Egin txotx!